

Antxiñako fotografixia



San Pedroko txalupia

Erretrato kurioso honetan agiri diran gizakume dotore honeik ez dira kostaldekoak, oñatiarrak baiño; gehixenak behintzat. Parajia be Oñatikua da, eta ez Deba, Zumaixa edo Orixo ingurukua. Eta txalupia bera be gure herrixan egindakua da; nun? ba, San Pedroko ermita aldamenian eguen fabrikan; zeinnek? fabrika haretako porterixan bizi zan gizon artetsu batek: **Porterueneko Tomas Abaunzek**, hain zuzen. Txalupiori San Pedroko presa gaiñian egoten ei zan, malatuaren giltza

onduan lotuta. **Artixa-errekan** gora eta behera ibiltten ei ziran zahar eta gaztiak uretan pasiuari **Jardin-azpittik** zihar **Exibaiko** zubiraño-edo.

Argazkixan agerketan xakunak heldu samarrak dira gehixentxuenak. Ezkerretik eskumara honeitxek dittugu: **Esteban Oñate**; **Joxe Egin**; **Pantaleon Jauregi**altzo, San Juan kaleko ehulia; **Senen Arzuaga**, zutik erdixan; **Nikolas Ibarrondo**, arraunari helduta; **Pedro Martinez**, abade jauna; **Luis Maiztegi**; eta **Joxe Abaunz**, Tomasen semia, muti-

ko gaztia zanian. Detalletxo bat: abadia eta mutikua kenduta, beste guztiak txapelakin dagoz. Dakizuenez, Joxek laister beteko dittu ehun urte. Fotografixiak, ba, 1910-1915 bittartekua izan biharko dau, eta **R. Onraitak** ataratakua, seguru asko. Albistiok Joxek berak eta bere familixa artekuak eskuratu doskue. Milla esker!

J.E.

Joxe Abaunzek itxittako fotografixia.



SANTA CRUZ

METALEZKO ERAIKUNTZAK
Galdereria. Errementeria

Goribar, 5 Tfnoa: 78 10 06 Faxa: 78 33 36 OÑATI

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
A. Lizaur, 7
OÑATI

Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK
KORTINAK